

# Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko azaroaren 29a

\*

## Adoptzioaren bide luzea



ANDER GILLENIA

■ Nafarroan, Hegoaldeko beste herrialdeetan bezala, haurrak adoptatzeko gogoak gora egin du azken aldian. Arrazoiak asko dira, eta aita edo ama izan nahi duen edonork gainditu beharreko bide legalak eta bestelako

trabak askotan amaigabeak. Hala ere, honetan esperientzia dutenek, aurreneko urratsak oso samurrak ez izanda ere, haurrak ematen duen poztasunak merezi duela diote. ■

### Zubian barna

BINGEN AMADOZ



### Galdutako denboraren oroimenean

Denborari heldu ahal izan diot, pasatako denborari. Ia oharkabean gertatu da, bat-batean sortzen diren gauzen modura. Eta Eguberri aurreko garaian izan da. Batek daki zergatik, lehenagokoetara, oroimenetara itzultzeko inoiz baino prestuago egon ohi garen horretantxe.

Bazegoen nire haurtzaroan, abendualdean guztiz zoragarri bihurtzen zen denda horietako bat. Jaiotzarako buztinezko iruditxoak, kortxoak estalpe eta etxetxoak saltzen ziren bertan.

Diru apurrak bildu eta hara joaten nintzen erakustokira lehenbizi, begiak zabal-zabalik, gustokoak nituen iruditxoak ongi aukeratzeko. Kontuak egin beharra zeuden gero. Hainbeste kostatzen

horrenbeste eduki. Hori erosi adinakoa bai eta hurrengorako hura.

Tokatu zait helduen zereginak hala aginduta denda horren inguruetara hurbildu behar izatea eta tentaldiari ezin eutsiz denboraren zurrumbiloan oroimeneko denda galduta zegoen nahi izan dut jakin. Nire harridurarako hantxe zegoen oraindik, zaharragoa agian, bainan zutik eta lehenaldiko lainoetan gordeta zegoen itxura beretsuan. Bar-kaezina denbora, kanpoaldea zerbaitetan zegoen aldaturik. Baina, pozgarria zen berrikuntza. Hiru neskato ari ziren jolasean, euskaraz barra barra. Pentsaezinezkoa nire haurtzaroko Tallalla hartan.

Kapritxosoa ere denbora. Ez horren

azkarra toki guztietan. Denda barnean buztinezko irudiek eta kortxoak etxetxoak betetzen zituzten apalak.

Dendak Cortijo izena ote zuen galde-tu eta baietz erantzun zidan dendari ezagunak. Hari esan nion aspaldiko bezeroa nintzela eta nire etxeko haurren jaiotzan aurtengo nobedade izanen diren irudi txikiak erosi ondoren saltzailak mutiko mukizua bainintzan horrela bota zidan: Kontuz! ez hautsi gero.

Eta galdutako denboraren berreskurapenak eragiten duen astinketari esker handik ateratzean malkoak begietan, prometatu nion nire buruari ez nuela horrenbeste denbora pasatzen utzi-ko ezagututako tokietara bueltatu ga-be.

KONTZERTUAK

**Burlata:** Desoreka eta Tedium taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, hilak 29, 21:00etan. Emanaldia herriko gaztetxean izanen da, eta dohainik.

**Zubiri:** Joselu Anaiak taldearen musika izanen da gaur, hilak 29, Gautxori aretoan, gaueko 01:00etik aurrera.

**Aurizberri:** Skalariak eta Nahi Ta Nahiez taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, hilak 30, gaueko 01:00etik aitzina, Aurizberriko Kontseiluaren eta Irati Irratiaren eskutik. Sarerrak 700 pezetan (28 libera inguru) izanen dira salgai.

**Eulate:** Aupa Navarra taldearen jotak izanen dira bihar, hilak 30, herriko pilotalekuan, 20:30etatik aurrera.

**Otsagi:** Scordatura ganbara musika taldeak kontzertua eskainiko du bihar, hilak 30, arratsaldeko 20:30etatik aurrera herriko elizan.

DANTZA

**Ororbia:** Trompel'oeil dantza garaikide taldearen ikuskaria izanen da bihar, hilak 30, herriko pilotalekuan, 20:30etatik aurrera.

ERAKUSKETAK

**Iruñea:** Dick Rekalderen margolanak ikusteko aukera dago Nafarroako Unibertsitate Publikoko erakusketa aretoan, hilaren 30era arte.

**Iruñea:** Lausanako *Sormen Berrria. Arte Gordina* bilduma ikusgai izanen da Nafarroako Museo-ko erakusketa aretoan, urtarriaren 5a arte.

**Zizur Nagusia:** Carlos Castiellaren akuarelak abenduaren 8ra arte izanen dira ikusgai Kultur Etxean. Aretoa asteleheneetik larunbatera 19:00etatik 21:00etara izaten da zabalik; jaiegunetan, berriz, 12:30etatik 14:00etara.

IKASTAROAK

**Iruñea:** Urpean igeri egitea gustuko baduzu, dei ezazu 17 22 38 telefonora, eta izena eman ezazu aurki martxan jarriko duten ikastaroan parte hartzeko. Lortuko duzun titulua nazioartean baliagarria izanen da.

**Zizur Nagusia:** Gazteentzako herri dantza ikastaroa izanen da Kultur Etxean. Goizez edota arratsaldez aritzeko aukera izanen da. Hilabete bakoitzeko 1.000 pezeta (40 libera) ordaindu beharko dira.

BESTELAKOAK

**Iruñea:** Iruñeko Planetariumean *Izarren zirkoa* izeneko ikuskaria izanen da gaur, bihar eta etzi, goizeko 11:45etan eta 12:45etan.

nafarkronika

Patxi Larrion

Gorrrak ote

**B**eren argudio falta gure indarra. Uste horretakoak ginen, eta nago, egun ere, antzeko iduripena barneraturik dugula. Gazteiz eta Iruñearen arteko distantzia, minututan, murriztu bada ere, inoiz baino urrunago gaude Euskadiko hiriburutik.

Aste honetan, Eusko Ikaskuntzak afera honetaz gogoeta egiteko parada eskaini digu. Asmo onez beteriko ekinbideak, eskuin espainiarrak Nafarroan duen sukurtsalekoek beren betiko ideiak berritu ditzaten balio izan du. Harrigarria badirudi ere, ezer gutxi lan egin behar izan dute beren diskurtsoa ozenki aditua izan dadin. Orroak adituta gorrrak ote diren pentsatzen hasia naiz, kritikek ez dute eraginik haiengan.

Foro orotan dute sarbidea, gainera, haien erranetan «besteak dira guregana etorri direnak».

Egia erran, ez zate arrazoirik falta. Horra hor aipaturiko elkarteak egin berri duena, zenbaitzuentzat konpreniezinak diren arrazoiak direla medio, diruz ongi hornituriko sariak jaso baitituzte Eusko Ikaskuntzaren eskutik. Larriagoa, ene irudikotz, dirulaguntzak kendu izanaren argudioak plazaratzekotan erantzunik eza sumatzea. Ongi heziak garen seinale, hesiturik jarraituko dugun marka.

Tarteka, elkarlanerako borondate falta onuragarria suertatzen da, polizia gehiago ez sartzeko balio dezake, Lesakako filmea konparazioa. Elkarlana oztopatze biderik zuzenena luzamendutan ibiltzea omen da.



asteko pertsonaiak



Jaime Ignacio Del Burgo  
UPNko diputatua

■ «Lankidetzaren Hitzarmenak amarrua dauka, ez da neutrala, Nafarroaren eta EAEn federazioa ezkututzen duelako. Eta guk ez dugu Nafarroaren estatus politikoa aldatu nahi». Besteak beste, adierazpen horiek egin zituen Jaime Ignacio Del Burgo UPNko diputatua, Eusko Ikaskuntzak antolatutako Nafarroa-EAE Lankidetzaren Hitzarmenaren inguruko mahainguruan. Horretan argi geratu zen Eusko Jaurlaritzak harreman iraunkorrak izan nahi dituela Nafarroarekin, baina UPN ez dagoela horretarako prest: «Gure nortasuna armarruetan ere ez dute errespetatzen. Hori aintzat hartuz, normala da gure mesfidantza», adierazi zuen UPNko buruak. Gasteiz eta Iruñean, beraz, inoiz baino urrutiago daude.



Fabian De Freitas  
Osasunako jokalaria

■ Osasunak banako berdinketa lortu zuen joan den asteazkenean Anoetan, Realaren kontrako norgehiagokan. Kopako kanporaketako itzuleko partidua zen. Lehen partiduan bat eta zero irabazi zuen Gaztelu plazako taldeak. Gauzak horrela, Lehen Mailako aurkaria kanporatuta, Osasunak Kopan aurrera egitea lortu du. Anoetako partiduan, Fabian De Freitas sartu zuen talde nafarraren gola. Horretaz gain, gogotik egin zuen lan, eta partidu polita egin zuen. Orain arte, holandarrak aulkitik ikusi ditu Osasunaren denboraldi honetako partiduko gehienak. Hemendik aurrera, oso litekeena da partidukoak berdegunetik bertatik ikusi ahal izatea. «Egin dezakedana erakutsi dut», adierazi zuen asteazkeneko partiduen amaieran.

ahaztu gabe!



Zernin Deuna alternatiboa

**Iruñea:** Iruñeak bere egun handia ospatuko du bihar, Zernin Deunaren eguna hain zuzen ere. Ohiko ekitaldiez gain (prozesioa, zingotzien bazkaria...), Iruñeko auzoetako kultur koordinakundeen eta jai batzordeen batzarrak bere jai egitaraua antolatu du. Ekitaldi alternatiboak arratsaldeko 19:00etan hasiko dira. Ordu horretan, Gaztelu plazan izanen dira txistulariak, dantzariak, hankaluzeak, gaiteroak, zantzarriak eta soinu-joleak. Halaber, hainbat gizarte mugimenduk mahaiak jarriko dituzte plazan, euren erakunde berriz informazioa banatzeko, eta euren materiala salgai jartzeko. Zortzietan, Alde Zaharreko karriketaren barna kalejira izanen da. Azkenik, gaueko hamarretan, Mañueta pilotalekuan afaria izanen da. Afarian parte hartzeko txartelak 1.500 pezetan izanen dira salgai (60 libera). Afariaren gibelatik, Mañuetan bertan kontzertua izanen da, eta gaueko 24:00etatik aurrera Gaztetxean (Jai Alai pilotalekuan) jaia izanen da.

Zuzenketa

EUSKALDUNON EGUNKARIAK delako Nafarkaria gehigarrian azaroaren 22an *Nafarroako euskalkiak zertan ote?* izeneko lana agertu zuen. Bertan parte hartzeko aukera izan nuen, eta egin zizkidaten galderei telefonoz erantzun nien. Telefonoaren bidez nik ahaz emanak lau kasutan bederen ez ziren behar bezala transkribatu. Halaz ere, lau kasu horiek alde bat utzirik, garrantzizko deritzodan beste zerbait zuzendu nahi nuke, nire izenean ematen den izenburua ez baita nik esana, testu barreneko ene hitzek erakusten duten bezala. Nire izenean Nafarkarian datorrenak honela dio: «Orainoz, Nafarroako hizkerok euskara estandarra indartsu den tokietan gorde daitezkeela ematen du». Nire hitzak honako hauek izan ziren ordea: «Orainoz, ematen du euskara eguneroko hizkuntza gisa indartsu dabilen eremuetan soilik gorde daitezkeela Nafarroako hizkerok». Nabarmena denez, euskara standarra Euskal Herrian —geografikoki— inon ez dago indartsu.

• Iñaki Camino  
ORBAIZETA

## Leitza

## UEMAk III. Jardunaldiak egingen ditu asteburuan

Udalerri euskaldunen bizi-maila murrizten duten faktoreak zehaztea du helburu

**U**dalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) bihar eta etzi egingen ditu III. Jardunaldiak Leitzaan. Besteak beste, Udalerri euskaldunen bizi-maila murrizten duten faktoreak zehaztea eta aurrera begira baldintza egokiak sortzea ditu helburu. Jardunaldietarako gomita alderdi politiko, sindikatu eta hainbat erakundeetako ordezkariak egin zaie.

Erredakzioa / Iruñea

UEMA-KO kideek Leitzaan dute zita bihar. Udalerri euskaldunak bizirik lelopean III. Jardunaldiak egingen dituzte udal euskaldunen problematika orokorra eztabaizatzeko.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen helburu nagusia da ehunetik gora udal euskaldunetan bizi diren 150.000 euskaldunak proiektu komun baten inguruan biltzea.

Udalerri euskaldunek euskara berreskuratzen garrantzi handia dutela aintzat hartuz, helburu hauek betetzeko ezinbesteko baldintza da UEMA osatzen dutenen ustez Udalerri euskaldunak bizirik jarraitzea.

Bihar Leitzaan egingen diren III. Jardunaldietan gai horren inguruan ariko dira bertaratutakoek. «Udalerri euskaldunetan bizi-maila murrizten duten faktoreak identifikatu, eta ondorioz, aurrera begira baldintza egokiak sortu jendea erakarri eta bertan bizi diren aldegin ez dezaten» da jardunaldietako hauen helburu.



UEMAko partaideak prentsaurrean aurkeztu zituzten jardunaldiak.

EDURNE KOCH

ruetako bat. Udalerri euskaldunek euskara berreskuratzeko ahaleaginean duten garrantzia nabarmendu nahi da. Iñaki Arregi, UEMAko koordinatzailearen dioenez, UEMA bezelako proiektuak «planifikazio zehatza» behar du. «Planifikazio oso bat, eta ez euskararen berreskurapenari dagokiona soilik. Izan ere, Udalerri euskaldunetako proiektu hau aurrera eramanez ahal izateko bizirik jarraitu behar dute, alegia herritarrek bertan bizi behar dute». Horretarako lana, zerbi-

tzuak, etxebizitza plangintza bereziak eskola, kultur eskaintza zabala e.a bertan izan behar dute.

Arazo horiek guztiak eztabaizatzeko ez da lan makala izanen eta Leitzaan bihar hurbiltzen direnak ikuspegi desberdinetatik aztertzen emanen dute eguna. Jardunaldien hasieran, UEMA irtenbidea bilatzeko eginahala euskal gizartearen sektore guztiena dela aintzat hartuz, gomite luzea egin du: EHNE nekazal sindikatuak; EAJ, HB eta EA alderdi po-

litikoak; Bertizko eskualdeko teknikariak...

Igandean berriz, beste hainbat gai jorratuko dira Leitzaan udal-letxean egingen diren jardunaldietan: UEMAko herri guztietan egin duten azterketa, herritarren partaidetza UEMA, HABEK eta UEMA Udalerri euskaldunetarako antolatu dituzten alfabetatze ikastaroak, ELA eta LAB sindikatuak lan mundua euskaldunetako UEMAko herriek eman dituzten lehen urratsak, beste batzuren artean. X

## Gaintza

## Mikel Elizaga kantariaren saioa Intzako elkartearen

Araitz-Beteluko Aste Kulturalaren barruan

Erredakzioa / Iruñea

MIKEL ELIZAGA kantariak Apaiz gaztea: bestelako kontzertua emanaldia eskainiko du gaur, gaueko bederatzi eta erdi-erdi aurrera, Intzako elkartearen, Araitz-Beteluko Aste Kulturalaren barruan. Asteazkenean hasi zen egitaraua, Amaia Vazquezek Osasuna eta sexualitatearen gaiaren inguruan eman zuen hitzaldiarekin, eta atzo diapositiba emanaldia izan zen Atalluko elkartearen, Felipe Uriarteren eskutik. Pamirko bihotzean izan zuen izena.

Bihar, larunbata, Bihar taldeak umeentzako antzerkia eskainiko du Beteluko frontoian, arratsaldeko bostetik aurrera, eta gaueko bederatzi eta er-

dietan herri afaria izango da Azkarateko elkartearen. 23:30etan kontzertua emango du Amaia Zubiriak, eta ondoren, gaupasa izango da Etzakit taldearekin.

Igandea izango da egun nagusia, Gaintza egingo dena. Goizeko zortzietan goiz-soinua izango da, eta eguerdian kalejira zarpantzarrekin. Goiz guztian artisau-lanen erakusketa izango da, eta eguerdian herri-bazkaria izango da bertsoari alaituta. Arratsaldean, Oskar eta Aitziber Estanga trikitilariak alaituko dute dantzaldia.

Aste Kulturala bertako kultur taldeak antolatu du, eta Araitz-Beteluko Kirol Batzordearen eta Nafarroako Aurrezki Kutxaren laguntza izan du. X

## Zizur Nagusia

## Eskuz Banakako Pilota Txapelketa jokoan aurki

Urtarrilaren 18an hasiko da bigarren edizioa

Erredakzioa / Iruñea

JOAN ZEN urteko deialdiaren arrakasta ikusirik, Zizur Nagusiko Ardo Pilotari Taldeak II. Eskuz Banakako Pilota Txapelketa antolatu du beheko mailatan. Iruñerriko herriko txapelketa datorren urtarrilaren 18an hasiko bada ere, parte hartu nahi duten bikoteek heldu den abenduaren 13ra arte dute izena emateko epea.

Iragan urtean egin legez, kategorien arabera bost mailatan banatu da txapelketa: aurrebenjaminak, benjaminak, ki-muak, haurrak eta kadeteak. Maila guztietako txapelketa izanen dute txapela eta saria, eta bigarren eta hirugarren sailkatzen direnak ere saria

eramanen dute. Sari berezirik ere izanen da norgehiagokan. Txapelketan pilotari hoberena izandakoari saria ematen zaio. Horretarako, beste ezagarririk batzuren artea, pilotariaren kirol eta gaitasun teknikoak hartuko dira aintzat.

Honetaz landa, kadete eta haur mailako finalistei aukera paregabea eskainiko zaie. Izan ere, Zizur Nagusiko festetan, irailean, bi partidu jolasteko aukera izanen dute pilotariak, eta ordaindu egingen zaie.

Txapelketaren inguruan informazio gehiago lortu nahi duenak 18 25 00 telefonora deitu behar du astelehenean ostegunera bederatzitik bostetara, eta ostiralean, bederatzitik hiruetara. X

## Berbintzana

## Gaztediaren Jaiak gaur hasiko dira, intsumisioari buruzko hitzaldi batekin

Bilboko El Inquilino Komunista taldeak larunbatean joko du herriko diskotekan

Erredakzioa / Iruñea

EL INQUILINO COMUNISTA Bilboko musika taldearekin kontzertua izango da bihar, larunbata, Berbintzanan, bertako La Union taldeak antolatu dituen Gaztediaren Jaiaren barruan. Talde independenten artean ordezkariarik ezagunenetakoa, El Inquilinoekin batera ariko da El Columpio Asesino taldea bertako diskotekan, gauerdetik aurrera.

Gazteen artean tradizio handiko jai hauek gaur hasiko dira, 19:30etan egingo den intsumisioari buruzko hitzaldiarekin. Ordubetik geroago jaurtiko da txupinazoa, eta poteoaren ondoren diskoetan izango dute zita gazteek gauerdetik aurrera, zezen mekanikoarekin. Bihar, larunbata, herri bazkaria dago antolatu eguerdirako. Bazkalburua Johnny Garcia umoristak alaituko du, eta gaueko kontzertua izango da. Mila pezetakoa da sarrera.

Igandean herri kirolak izango dira 16:30etan, bertako gazteek egingo duten erakustaldiarekin, eta gauerdian, berriro diskotekara. Astelehenean, bazkalostean, Creacion orkestrarekin kontzertua izango da, 18:30etan alkoholismo eta droga-menpekotasunari buruzko hitzaldia, eta gauean berriro dantzaldia Creacion orkestrarekin. Amaitzeko, La Palmira transformistaren emanaldia izango da diskotekan. X

## Iruñea

## Kili Kili aldizkariak banatu ditu urteroko sariak

Ehundaka neska-mutilek parte hartu dute

Erredakzioa / Iruñea

KILI KILI aldizkariak urtero egingen duen lehiaketan parte hartzea handia izan da, guztira, 3.100 umek bete baitute aldizkari orrialdea. Sariak batzuk 3000 Hitzegia, Europa Hitzegia edota Eskola Hitzegia jaso dute. Hala ere, Kili Kili-k emandako sari preziatuena —bizikleta— gutxi batzuk eman dute: Lizarrako Maitane Apestegiak, Doneztebeko Maria Iraola Juberak, Altsasuko Jon Fernandez Ruizek eta Elkanoko Irati Herrera Eretak. X

# Aitatasuna eta amatasuna asetzeko nahia

Seme-alabarik izan ezean, gero eta bikote gehiagok hartzen dute adoptzioaren bidea herrialde honetan

**N**afarroan, hainbat arrazoi direla kausa, bertako haurrak adoptatzea gero eta zailagoa da. Haur aintzat hartuz, bikoteek atzerriko bidea hartu dute eta beste herrietako umeak adoptatzeko joerak gora egin du nabarmenki azken boladan. Herrialdean, zehazki, duela bost urte hiru adoptzio eskaera egin ziren; aurten, ordea, 150 izan dira.

Irene Arrizurieta / Iruñea

BIKOTE askok, batez ere arazo biologikoak direla eta, aita-ama izateko aukerarik ezean adoptzioa jotzen dute. Hala ere, haurra lortu arteko bidea luzea eta korapilatsua da. Nafarroako Ongizate Sailak emandako datuen arabera, joan den urtean herrialdean adoptzio eskaerak 129 izan ziren eta zerrenda honi gehitu behar zaizkio aurretiaz zain zeuden 161. Eskaera oso handia bada ere, ez da gauza bera gertatzen eskaintzarekin, urte horretan gauzatu ziren adopzioak bederatzi bakarrik izan baitziren —bi jaioberrri, bi nazioarteko adoptzio eta familia harreratik iragandako beste bost—.

Aurten ere eskaerak anitz dira, urtea bukatzeaz dagoelarik; herrialdean, behinik behin, Espainiako umeak adoptatzeko hamaka eskaera egin dira eta nazioartekoa gauzatzeko 150 Ego-kitasun Ziurtagiri eskatu. Baina, bada beste datu adierazgarriagoa: Nafarroan azken bost urteotan nazioarteko adopzio eskaerak kasik hutsaren hurrengo izatetik oso nabarmen igotzera aldatu dira; hain zuzen ere, hirutik 150era pasatu baitira. Eskaera mordo horren zergatiak bat baino gehiago dira. Lehenik eta behin, aintzat hartu behar da azken datuen arabera Nafarroak duela Munduko jaiotze tasa apalena —1,2— eta horrela jarraituko balu ez lukeela belaunaldien ordezkapenik izanen. Bigarrenik, adopzio nazionala gauzatzeko denbora luze itxaron behar da —Hegoaldean haur jaioberrri hartzeko gutxienez zortzi urte itxaron behar dira— eta bikotea ez dago hainbeste denbora zain egoteko prest. Eta hirugarrenik, gero eta ume gutxiago abandonatzen dira, eta hau dela eta, adibidez, Madrilgo itxaron zerrenda itxita dago. Horrez gain, Foru Komunitateko Ongizate Sailaren politika familia harreraren behin-behineko egondako umeak adoptzioan behin-betiko uzteari ematen dio lehentasuna.

**Nazioarteko adoptzioa: beste bideak agortu eta gero hartutakoa** • Moda kontua eta komunikabideetan agertutako hainbat erreportaiaren eragina



Nafarroako bikote askok Hego Amerikako umeak aukeratzen dituzte.

ARTXIBOKOA

bada ere, nazioarteko adoptzioa haur bat lortzeko dauden beste bi bideak aztertu ondoren aukeratzeko dute bikoteek. Adoptzio administratiboa hasiera batean gehienek eskatzen dutena da. Komunitate Autonomo bakoitzean dauden zerrenden arabera Ongizate Sailak zuzen-zuzenean ematen dizu umea, jaioberria edo hilabete gutxiagoa. Adoptzioa judiziala korapilatsua eta askotan mingarriagoa izaten da, familia harreraren egondakoak direlako. Normalean umeok arazo larriak dituzten familietatik edo desegin diren datoz, eta beste familia batean harrera moduan behin-behineko egon eta gero, egonaldia behin-betiko izaten da. Nafarroako Gobernuak adoptzio mota honi lehentasuna ematen badi ere, Begoña Martinez Mungia Ume Alaia elkarreko partaidearen irudiko ez du behar lukeen adina garrantzi familia harrerak. Ume Alaia 1993an sortu zen Bizkaian adoptatzaile eta adoptatuei biltzeko

## Nazioarteko adopzioa egiteko eman beharreko pausoak

Edozein bikotek atzerrian haurren bat seme-alabat hartu nahi badu, Nafarroako eta Espainiako administrazioetan ezezik, umearen herrian hainbat agiri legezatu beharko ditu.

- 1.- Eskaera espedientea ireki Ongizate Sailean, eta behar diren dokumentu guztiak bildu eta legezatu.
- 2.- Gaitasun ziurtagiria eskatu Nafarroako Gobernuko Ongizate Sailean. Aipatu ziurtagiriak baieztatuko du gurasoak psikologikoki eta ekonomikoki haurra seme-alabat hartzeko egokiak direla.
- 3.- Espedientea Espainiako Gizarte Gaietarako eta Kanpo Harremanetarako ministerioetatik iragan eta gero, baliza diplomatikoaren bidez, umea adoptatu behar den herrira bidali.
- 4.- Behin haurra lortuta, adopzioa tramitatzen da umearen jaioterrian. Bertan familiak 30-40 egun egon beharko du egokitzapen eta epaitegi prozesu osoa bukatu arte.
- 5.- Itzultzerakoan haurra Erregistro Zibilean inskribatu behar da.
- 6.- Ongizate Sailak familiaren eta hauraren egoeraren jarraipena egingen du.

eta informatzeko aukera emateko, eta bide batez, arazo hori dutenek elkarri esperientziak kontatzeko. Era berean, ume bat hartu nahi duen edonori informazioa ematen diote eta jarraitu beharreko bideak argitu. Martinezen ustez, «familia harreraren figurari ez zaio behar bezainbeste lehentasuna eman». «Haurrarentzat irteera bat izan daiteke bere familia egituratzen den bitartean beste batean bi edo hiru urte egotea. Kontuan izan behar da adoptatzeko moduan daudenak ez direla hainbeste, eta batzuetan, Administrazioaren burokrasia luzatzen da eta umeak denbora gehiegi egoten dira harrera etxetan behin-behineko egoeran, eta hau ez da ona haurrarentzat». Hala ere, bide judiziala nahiko korapilatsua da guraso biologikoak ezagutzen direlako eta beraiek dutelako lehentasuna. «Horrelako adoptzio prozesuak legalki konplikatuak eta gogorak dira eta adore handia izan behar da agoantatzeko».

Nafarroan bost urtetan nazioarteko adoptzio eskaerak nabarmenki areagotu dira, hiru izatetik 150 izatera iragan baitira

Beraz, garestiagoa bada ere —abokatua eta notarioa, legalizazio tasak, itzultzailea, garraloa...— bikote gehienek nazioarteko bidea hartzen dute. Beste bideak bezala luzea eta konplikatu da baina emaitzak hobek izaten dira eta gurasoak gehienetan beren nahia betetzen dute. Espainiak adoptzio protokoloa du Txile, Honduras, Ekuador, Costa Rica, Paraguai, Uruguai, Venezuela, Dominikar Errepublikak, Bulgaria, Hungaria, Polonia, Errusia, Txina eta Indiarekin. Hala ere, horrek ez du erran nahi beste herrietako haurrik ezin denik adoptatu, horietan eman beharreko pausoak aurreikusita daudela baino. Ongizate Sailak dioenez, Nafarroan egin izan diren eskaerak Hego Amerikako herrietan adoptatzeko izan dira: Kolonbia, Txile, Peru eta Mexiko besteak beste. Orain, berriz, eskaerak gehiago dira Europa Ekialdeko herrietarako: Polonia eta Hungaria, beste batzuen artean.

Adopzio nazionalan gertatu bezala, nazioartekoan ez dago haurra noiz hartuko den jakiterik. Baina, beti ere, beste bideak baino laburragoa da, urte bat eta hiru bitarteko epea izaten da. Denbora haurraren adinak, sexuak eta herriak baldintzatuko du batez ere. Nazioarteko adoptzio bat egiteko eman beharreko pausoak asko eta konplikatuak

Adopzioaren bideak

## Ekarri aurreko kezak...

Alberto Barandiaran / Iruñea

«NOLA erabakitzen den haur bat adoptatzea? Semea edo alaba egitea erabakitzen den bezala, uste». Idola eta Fernandori bi urte joan zaizkie adopzioaren bidetik abiatzeko erabakia hartu zutenetik. Bi urte luze, gestioez, agiri ofizialez, deiez eta itxaropenez beterikoak. Apirilera dute data. «Haurrik ez genuela izango onartu ondoren», azaldu du Idoiak, «bolada batez ahazten duzu hori, baina gero ikusten dituzu bes-teen haurrak, konturatzen zara helduagoa, zentratuagoa zaude-la, eta aukera sortzen denean...».

Nazioarteko adopzioaren bidea hartu dute haiek, besteak aztertu ondoren. Lehendabizi herriko gizarte laguntzailearengana jo zuten, eta hark Nafarroako Gobernura bidali zituen. Hor Estatuko adopzioaren berri eman zioten. Bikotearen adinak, berez, murriztu egiten ditu aukerak, eta zerrenda luzeari erreparatu ziotenean —iaz bi haur besterik ez ziren eman, eta zerrendan 161 eskaera daude oraindik—, bigarren erabaki garrantzitsua hartu zuten: atzerrira joko zuten. Bazterturik utzi zuten berehala Ongizate Zerbitzuan eman zieten bigarren aukera, desegin den familia bateko haur bat eperik gabe etxean

edukitzea alegia, —«nik badakit ezingo nukeela hori eraman», onartu du Idoiak— eta bazterrean utzi ere bide ez-ofizialek jotzeko aukera. «Oso tentagarria da, pentsatzen duzulako zurekin hobeto egongo dela haur hori, baina ongi pentsatu ondoren, segituan erabaki genuen nahiago genuela ehun urte zain egon haurren trafikoa izan daitekeena lagundu baino».

Nazioarteko adopzioa zen hirugarren bidea, beraz. Gomen-datu zieten ezagunen bat zuten herrialde aukeratzeko, eta Kolonbia hautatu zuten. Hautu ona, antza, bertan oso arautua dagoelako adopzioa. Kolonbiaren Madrilgo enbaxadari deitu eta han eman zieten egin beharrekoaren berri: egokitasun agria, egoera ekonomikoari buruzko datu ugari, psikologoan azterketak, galdetegiak... dena enbaxa-


dak oniritzitako notario batek sinatuta. Iazko urrian Kolonbiako Ongizate Familiarrak baietza eman zion aurkeztutako guztiari eta zerrendan sartu zuen bikote honen eskaera. Ezin jakin datu askorik, hala ere. «Haur txiki bat eskatu genuen, eta gure adinaren hiru edo lau urtekoa izango dela esan ziguten». Mutikoak neska baino gehiago direla ere jakin izan dute. «Pentsatze-koa da umezurtz-etxeetatik etorriko direla», dio Idoiak, «eta badakigu egunkarietan ateratzen dituztela argazkiak guraso berri eman baino lehen, senideren batek ikusten duen edo».

**Bide azkarragoak etxetik gertu** • Ez da horren urrun joan behar, jakina. Urteotan gorakada izugarria izan da adopzio eskaerkin —ekialdeko umezurtz-etxeen egoerari buruzko erreportaiak

direla eta—, eta bide azkarragoak eta horrenbeste burokraziarik gabekoak badira. Etxetik gertu. Idoia eta Fernandok jaso dituzte telefono deiak ekialdeko haurrak —Errumaniakoak eta— adoptatzeko eskainiz. «Haurra adoptatzeko erabakia hartu duen jende guztiak du aukera hori buruan», dio Idoiak, «eta hor dago bidea, ez oso urrun».

Kolonbiako zorioneko deia zain daude orain, hurrengo egunean abioi-txartela eta bihar-munean maleta hartzera behar-tuko dituen. Han beste hiruz-palau aste, paper guztiak egiteko, eta gero etxe berrira. Geroago, galdera handi bat. «Uste dugu adin horretako haurra erraz egokituko dela giro honetara, baina gu gara berarekin ohitu beharra daukagunak. Eta ez da bakarrik gurasoen ardura, baina baita familiarena, lagunena, herriare-

na...». Inguru-koen laguntzari buruz hitz onak besterik ez badituzte ere, kezka ezin alden-du. «Azken finean, historia bat —bere historia— atzean duen haur bat izango da, gurasoek abandonatu dutelako, eta buruan dugu galdera da zer-nolako haurra eman-got diguten, nola egongo den, eta guk aurrera eramateko gai izango ote garen».



Haurrak normalean ez du arazorik izaten hemengo eguneroko bizimodura egokitze.

ARTXIBOKOA

## ...iritsi ondoko pozak

Irene Arrizurieta - Iruñea

MARKOS ETA MAITE bikotekide dira aspalditxoan eta badakite zer den adopzioaren bide luzea. Markosek 35 urte ditu eta Maitek 39. Biek Administrazioan egiten dute lan, eta Berriozarren bizi dira Kolonbiatik zazpi hilabete-ekin ekarri zuten bi urte eta erdiko Peio semearekin. Haurrak izatea beraiantzat biologikoki ezinezkoa zela ohartu zirenean, beren amatasuna eta aitatasuna asetzeko bat adoptatzeko erabakia hartu zuten. «Erabakia luzea izan zen, lauzpabost urte egon ginen zer egin jakin gabe, adopzioa aukeratu arte». 1989an hasi ziren bila. Bikoteak jaioberrira edo hilabete gutxiko haurra nahi zuten. Beren lehen pausoa Ongizate Sailera informazio bila joatea izan zen. «Hemen hasi ziren gure arazo burokratiko eta administratiboak», gogoratu dute. «Aurretik Nafarroan nazioarteko adopzio kasuak izan ziren arren, gu akordioa dagoen herrialde batekin adopzioa ofizialki egiten

aurrenekoak izan ginen. Ongizate Sailak erotu egin gintuen. Ez zituzten ideiak argi». Nafarroako adopzio zerrenda batean izena eman eta gero, denbora bazihoan, eta zerrenda aldi berean luzatuz zihoan, eta sei-zortzi urte itxaron beharko zutela esan zieten. Espainian ume bat adoptatzeko gehieneko adina 40 urte direla aintzat hartuz, Berriozarko bikoteak denbora premia zuela ikusirik beste bide bat hartu zuten: nazioarteko adopzioa.

Ongizate Sailen emandako informazioaren arabera, Kolonbia eta Txile aukeratu zituzten. «Dokumentazioa tramitatzen hasi ginen. Administrazioak dena konplikatu zuen. Behin egin eta gero ez dela hain zaila antzematen duzu, baina Administrazioak dantzan ibili gintuen: paperak legeztatu, notarioen sinadura lortzeko dantzak... Korapilatsua da ezezaguna delako. Eginarazi zizkiguten paper asko ez ziren beharrezkoak, eta urte batean paperekin gora eta behera ibili eta gero, ez genuela deus

aurreratu konturatu ginen». Azkenean, zuzeneko bidea aurkitu zuten eta notario batek Kolonbiak Bilbon duen kontsuletara bidali zituen.

Kontsuletxean jarraitu beharreko pausoa eta egin beharreko paperak zein ziren argitu eta gero, Kolonbian bizi den Atarrabiako moja batekin jarri ziren harremanetan. «Berak lagundu zigun eta Kolonbian adopzioez arduratzen den abokatu batekin jarri gintuen harremanetan. Hemendik aitzina, prozesua errazagoa eta eramangarriagoa izan zen». Bertako Familia Ongizateko Ministerioko zerrendan sartu ondoren arazo bakarra Egokitasun Ziurtagiria lortzea izan zen. «Ongizate Sailak eman beharreko txosten garrantzitsuen falta zen eta hori izan zen gure arazoa. Bederatzi hilabete kosta zitzaigun lortzea. Orain aldatu dute eta psikologo agentzia batek egiten du lan hori». Ziurtagiria lortu bezain azkar, behin-betiko zerrendan sartu ziren 1994ko abuztuaren 26an, eta azaroaren

29an abisua eman zieten: bazuten haurra. «Gurea oso azkarra izan zen, baina orain luzeagoa da. Behin-betiko zerrendan sartu eta gero gutxienez urte eta erdi itxaron behar du bikoteak».

«Guri abisua eman zigutenean bidaia antolatuta eta ero moduan ateratu ginen hemendik. Han umea ematen dizutenean, Familia Ongizateko Ministerioak kontrolatzen duen egokitze prozesu bat pasatu behar duzu; haurrekin gutxienez hogeitun egun egon behar duzu. Konforme badaude Familia Epaitegiak adopzioa egiteko epaia ematen du». Traba horiek guztiak gainditu behar izan zituzten arren, egun oso pozik daude Peiorekin. «Iruñea etortzeko arazoak ere izan genituen. Parisen aireportuz aldatu behar izan genuen eta Urte Zaharrean blokeatuta gelditzeko zorian egon ginen. Hala ere, merezi izan du. Peio oso ongi egokitu da, egunero Sanduzelaiko haurtzaindegira eramaten dugu eta oso ongi moldatzen da beste umeekin. Oso irekia da eta taldeko liderra». X

direla aintzat hartuz, Kati Eskubi Nafarroako Ongizate Saileko Adopzio Bulegoko arduradunak dio egin beharreko lehen gauza bertan «informazioa» eskatzea dela. Adopzioa egiteko prest badago, Egokitasun Ziurtagiria eskatu beharko du eskaera egin duenak, Administrazioak denbora behar duelako hori emateko. Aipatu ziurtagiriak baietzatzen du bikotea psikologikoki eta ekonomikoki prestatua dagoela ume bat hezitzeko. Lehenago Ongizate Saileko psikologo talde batek hainbat proba eginarazten zituen, eta egun kanpoko psikologo agentzia bat du kontratatua Gobernuak. Behin paper guztiak legeztatuta eta Egokitasun Ziurtagiria lortuta, Espainiako Gizarte Gaitarako eta Kanpo Harremanetarako Ministeriotik iragan ondoren dokumentuak eskaera egin den herrialdera bidaliko dira. Bertan, haurra lortu eta adopzioa egin eta gero, gurasoek egokitze prozesu bat iragan beharko dute, 30-40 egun bitartekoa. Nafarroara bueltatu eta gero, Erregistro Zibilean inskribatuko dute haurra eta Ongizate Sailak jarraipen bat egiten du.

**Nazioarteko agentziak: oraindik arautu gabeko etorkizuneko bidea**

Joan den urteko abenduan Madrilgo Gobernuak Adin Txikiko Lege berria onartu zuen, eta oraingoz, Katalunia, Nafarroa eta Galizak bakarrik egokitu dute beren araudietara. Aipatu legeak nazioarteko adopzio agentziak arautzen ditu. Nazioarteko agentziak sortu berriak dira, eta funtzionatzen duten bakarrak Bartzelonako bi dira: ADDIA eta AAIM. Agentziok bitartekaritza lana egiten dute eta agirien tramitazioaz eta adin txikikoaren ordezkapenez arduratzen dira. Nafarroan, horiek erregulatzen dituen araudia aurki onartuko du Gobernuak. Badira jada interesa duten entitateak, baina oraindik zain egon beharko dute, akreditazio deialdirik ez delako atera.

Nazioarteko adopzioak bideratzea izango da gehienbat etorkizuneko agentziok izango duten zeregina nagusia. Begoña Martinezen irudiko, nazioarteko eskaerak igo egin direnez, «Euskal Herritik kanpo adoptatzeko maila areagotu egingo da, gero eta herrialde gehiagorekin daudelako akordioak eta errazago egin daitekeelako. Gainera, jendeak adoptatzeko erabakia hartzen duenean ez daki nora zuzendu, ez daki Ongizate Sailera joan behar duenik ere. Beraz, gurea bezalako elkar-teek edota horrelako agentziekin informazioa biltzeko balio dute». Hala ere, berak ume adoptatuak dituzten badakielako, helburua adopzioari ez izatea beharko lukeela dio. «Adopzio bat ume abandonatu bat da eta horrek pertsona batzuk sofritzen ari direla esan nahi du».

Xanti Begiristain

## Eratsun, Herri ezezagun hori ETBn

Aurreko egunetan hasi zen Eskuz Binakako Txapelketa, eta azken urte hauetan guztietan bezalaxe, aurten ere Julian Retegi Eratsungo pilotari bikainak parte hartzen du aipaturiko txapelketan. Hori dela eta, partiduen hasieran jakina da ematen direla pilotarien datu eta ezaugarri nabarmenatariko batzuk. Kasu honetan, besteak beste, jarri ohi dute pilotari bakoitzaren jaioterriaren izena. Baina honetantxe iristen zaigu hain zuzen ere, ETBko bitxikeria. Begira ezazue, neronek eramango ditut 6-8 bat urte, gutxi gora-behera, ETB ikusten Iruñean, eta pilotazalea naizenez gero, partidua ematen dituztenean sarritan ikusten ditut zuzenean, edo bestela beranduago, grabatu eta gero, batez ere partidu horiek interes handi samarra baldin badute. Hona hemen ba, ETBleko arrokeria, bere historia osoan uste dut ez dudala behin ere ikusi Eratsun izena ongi idatzirik, baizik eta beti jartzen baitute Eratsun, gaztelaraz bezala.

Nik gonbidatzen ditut ETBko ardura-dunak joan daitezen herri horretara eta bertan ikus dezaten nola dagoen idatzita. Nola? Ba, Eratsun jakina!


ETBko erantzukizundunek jakin behar lukete gauza bat hasteko, alegia, nahiz eta Nafarroan dugun Euskararen Lege zeken eta zikoitz, Eratsun behintzat jotzen dute euskal eremuaren barruan dagoela eta zorionez izena ongi idatzirik dago. Dena den ETBkoentzat Eratsun-raino joatea urrunegi eta zailegia gertatzen bazaie, orduan behinik behin molesta litezke kontsultatzen azken hiztegi, enziklopedia, estilo liburuak, edo azken buruan, Euskaltzaindiari berari.

Niri behintzat, euskaldun nafarra naizen alde-tik, guztiz iraingarria gertatzen zait oker hori ikustea behin eta berriz, eta gainera horrela urte astun askotan. Eratsundarrentzat zer esanik ez eta orokorrean euskal kultura maite eta defendatzen duen pertsona ororentzat.

Pentsa dezagun pixka batez zer on eta onura ekar diezaioketen esate baterako ETBri, behin eta berriz Zarautz idatzi beharrean, telebista horrek jarriko balu askotan Zarautz, adibidez. Hitzak eta azalpenak soberan daude. Baina ETBk ongi demostratu du orain arte behintzat, zenbait herri edo leku-izen ikasteko ez duela batera erreztasunik, eta zenbait edo asko horietariko bat Eratsun duzue prezeski.

Beste alde batetik ere, sobera ongi ulertzen ez dudana zera da, dagoeneko Eratsungo alkatea edota zinegotziak berak nola ez zaizkion kexatu EITBko zuzendariari. Baina beno, badakigu leku guztietan daudela utzikeriak, beste lehentasun batzuk, edota ezjakintasuna. Dena dela, argi eta garbi geldi dadila hemen, erantzulerik lehena eta handientzat jotzen dudala inongo zalantzarik egin gabe EITB. Gainera komeni zaigu gogoratzea EITB hori dituela euskara teknikari batzuk akatsak eta hutsak zuzentzeko, baina kasu honetan eta beste askotan ere, jakina, ez da batera somatzen.

Eta Eratsuni buruz ari garenez gero, ondoren jarri behar ditut bere datu eta ezaugarri batzuk,



herriaren izena eta ohorea altxatzeko EITBren ordez: Iruñeko merindadekoa da, eta Basaburuan dagoen udalerria duzue. 195 bat biztanle ditu. Abeltzaintza, larreak, zuhainak, basoak eta frutabolak dauzka. Artisautza ere bai. Biztanleriaren ia erdia lehen sektorean aritzen da lanean, eta %40 bigarrean. 1960an 430 biztanle zituen, eta 1986an 239. Beraz, beherantz doa. 25,3 km. karratu, 7,7 biztanle kilometro karratuko, 528 metroko altitueda hirigunean, eta 1991ko erroldan %100 euskalduna zen. Hortaz, nik uste dut beren hizkuntzak eta herri-izenak begirune handiagora merezi dutela.

Arte eta historiari dagokionez ere gauza gehiago esan liteke, baina gaurkoz aski da. Bakarrik aipatuko ditut beste pertsona ospetsu batzuk. Julian Retegiz gain, esaterako, Retegi I.a eta Retegi IV.a pilotariak eta Mari Mar Retegi euskara irakasle fina, besteak beste.

Ikusten duzue zenbat jakin daitekeen liburu egoki batzuk erabiliz? Ea ba EITBkoek ikasten duten behingoz!

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

## Louis Etxeberri donazahartarrak bi ele

■ Bizt giren eskualdean / Eskual herri ederrean / Astekaria gure artean / Eskualduna izenean / Hori eskurat hartzean / Gozo bat zait bhotzean. Lehenik urhats egiten / Hast zen Donazaharren / Louis Etxeberri mol-daturik zen / Eman bideari lotzen / Orat baita ezagutzen / Zoin urrun den hegaldatzen. Honelaxe bazitzaigun kantari Mixel Lagarret, Etxeberri beraren herkiea zen koblarria. Etzegen beraz oker bertsoegile garaz-tarra; izan ere, alditik aldira geroz eta idazlari gehiagok eraikitzen bazuen ere Eskualduna Iparraldeko argitalpena, gutiz gehinetan Hirriart-Urrutiaren akullaturigo gerizpean gainera, gure gizonaren keme-nari zor baitzaio haren sor izana.

Felix J.B. Louis Etxeberri Préjean joan den mendeko izenik aipa-tuenetakoen artean dugu Iparraldean bederik ere. Aita Jean Baptiste Baigorrikoa zuen. Etxeberrineakoa espreski. Orduko hainbat eskual-dun gaztek egin antzera. Kubako Habanara joan zen sosen xerka, eta itzuli zelarik, Nérée Dassance omen handiko apezak esposatu zuen Amélie erreginaren andere-laguna zen Augustine-Claudine-Anne-Ghizlainerekin, handik gutxira aitakotu zelarik. Lau seme-alaba izan zuen Etxeberri-Préjean bikoteak: gazterik itzali Marie; armadako goren mailako ofiziala zen Caron Beaumarchaisekin ezkondu Caroline —bi hauen semea Italiako enbaxadorea izan zen—; 1870.eko gerratean jaurtigailu batek burua mozturik hila agitu Maurice; eta azkenik, guri dagokigun Louis. Baionan denboraldi bat eman ostean, aitak Salhako gaztelua erosi zuen Donazaharren, eta bertan sortu zitzaigun gure Louis aidurra 1853.ean. Ikasketa guziak Parisen bete zituen, zuzen-bidean doktoregoa atzeman arterainokoak. Berriz ere donazaharreturik, Frantziako ipar aldean burdinbideen egiteko arta ukan zuelako gorki ingeniari ezaguna zen Jakes Manielen alabarekin ezkondu zen, eta handik gutxira, zuzenbideko ikasketekin arras enpo ez antza, giza ekonomia ikasteari ekin zion unduski, bestenaz hagitz gustokoa bide zuena. Le Play zenaren ikaslea izan zen, eta geroantzean bata hark sortu Société d'Economie Sociale elkargoaren kidea. Lagunarte honek ateratzen zuen argitalpenean izkribu bat baino gehiago elki zuen.

Halaz guziz, enantzu itzeleko gure gizonari bereziki zor dioguna Eskualduna asterokoa aitzinaraztea dugu ordea. *Journal basque français hebdomadaire* delako hau 1887.eko martxoaren 15ean eta Donibane-Lohitzumen kaleratu zen estreinakoz, betiere Baionaldeko ezkeriar gorrien izenean Mauleko suprefet ondoa zen Martial-Henry Berdolyk iragan urteko abuztuaren lehenengoan agertarazi zuen *Réveil basque* aldizkariari aurre egiteko aiduru agertu zela: *Notre journal est fait par des basques pour des basques. C'est dire ce qu'il sera. Il sera avant tout le défenseur passionné de toutes les vieilles traditions du pays au premier rang desquelles nous plaçons son invincible attachement à la religion catholique sincèrement pratiquée.* Hasteran euskaraz eta frantsesez argitaratzen bazen ere, fite batean euskarak bereganatuko zuen erdalotsa, eta orrialde oro euskara hutsez inprimatzera zalui iritsi zen. Lehendabiziko zuzendaria Hirriart-Urruti izan zuen, eta geroantzean Adema, Saint-Pierre, Soubelet eta Arotzarena. Jakina ere bada izenburua aldatuarekin ageriko zela, *Eskualdun ona*, baina zenbait gutxiren buruan berreskuratuko zuen lehen bataio izena.

Etxeberrirengana itzuliz, aipa dezagun bere ibilbidea politika arloan. Gorago esan moduan, txuriaren artean kokatu beharra dugu, bonapartezale amorratua eta katoliko kartsua baikeuen. 1889.eko hautes-kundeetan bere burua hautagai aurkeztu zuen Mauleko arrondisamendurako. Harisperen eskutik. Bere ohizko etsaia zen Berdolyk 1893.ean garaitu zuenean, erlaitz lukeko politika hura largtu zuen. Berdolytarrek Bordelen zuten etxondoa Donapauleun ezarri aitzinetik bederen. Martial-Henry Berdoly legegizona Bordelen bertan sortua zen 1844.ean, nahiz zetorren urtetik Euskal Herrian hazi. Bitan ihardun zuen deputatu, 1893. eta 1898.ean, eta behin senatore 1900.ean. 1905.ean zendu zen bere Amikuze-Uharteko jauretzean. Gorri eta txuriaren arteko aharra politikoko hauek garbitzeko, norberedak bere eginahalak burutu zituen, eta Etxeberri txuriak, aitzinaratu zituen artean, hainbat hauteskunde paper izkiriatu, inprimarazi eta banatu zituen Ziberuko herrietan, euskaraz eginak direnak naski: *Botzako katichima*; *Catichima laburra hauetuen edo electionentzat*; *Mauleko har-rondisamenduko jaun boz emaleak*; *Ziberouko artzagner*, eta *Zibe-rouko laborarier*. Bostak Baionan argitaratu ziren, Lamaignèreren etxean, 1889. urtean. Ziberutik Baxenafarroara itzuli zenean, etzuen langintza politikoa erabat utzi, eta Donazaharreko auzapeza izan zen, baita Garaziko sindikoa. Horrenbeste zereginak etzieten txolarterik eskeintzen Eskualduna aldizkariak eskatzen zuen begirale lana burutu ahal izateko, eta Renaud Elizagarai ziberotarrari pasarazi zion ardura. Guziarekin, etzuen denbora luze iraun hil aurretik, eta 1907.eko urriaren 15ean ahitu zitzaion bizia sorlekuan berean. ■



Nafarroako taldekako Txapelketako maila nagusi-seigarren jardunaldiko partida, 1996ko azaroaren 16an jokatua.

**Jose Leuza** (Iruñeko Anaitasuna), 2.135 ELOkoa  
—**Rafael Ruiz Escobar** (Iruñeko Oberena A), 2.005 ELOkoa.

1.e4, c5; 2.Zc3, Zc6; 3.Ab5, Zd4; 4.Ac4, e6; 5.Zf3, Dc7; 6.0-0, a6; 7.a4, Zf6; 8.d3, Zg4; 9.g3, Zf3 xa; 10. Df3, Ze5; 11. De2, b6; 12. Ge1, Ab7.

"g2ko" hutsunea sumatuta, alfila erasotzeko posizioan.

13.Ab3, h5; 14. Af4, Ad6; 15.Ad5.


Peoiarekin harrapatuz gero, zuriek berreskuratuko lukete pieza.

15..., Dd8; 16.c3, g5; 17.Ae5, Ae5; 18.aG-d1, Ab8; 19.Ze3, Df6; 20.Zc4, Ac4, Ac7; 21. d4, b5; 22. b5, b5; 23. Za3, b4; 24. Zb5, Ab8; 25. c5, h4; 26. Zd6 xa, Ad6; 27. Gd6, c3; 28. Ad5.

Ikus koadroa. Beltzen erabakiak zaila dirudi, baina erasorik gogorrena aurkituko dute.

28..., g3; 29. Ab7, Gh2; 30. Gf1, Gf2; 31. Aa8, Gf1 xa; 32. Df1, Df1 xa; 33.Ef1,c2; 34.Eg2,c1=D; 35. Eg3, Db2.

Zuriek amore eman behar izan zuten.



# Atxuritik Larrunerat mendiaz blai

*Iñurrategi anaiek eskainitako diapositiba emanaldiarekin hasiko da gaur Beran Hilabete Kulturala*

Irené Arrizurieta / Iruñea

URTEETAN Kultur Astea izan dena antolatzaile berriak gehitu ahala Kultur Hilabetea bilakatu da. Gaurtik heldu den abenduaren 29ra arte iraungo duen Kultur Hilabetea 1986an abiatu zuen Urruñako Hazia elkarteak Kultur Aste gisa, eta Azkaineko Altxa Lili elkarteak gehitu zitzaion 1991n. Hiru urteren buruan, 1994an Altxa Lili bakarrik antolatu zuen eta aurrenekoz Kultur Hilabetea izan zen, eta gaur ere halaxe da. Paskal Oxandabarat Azkaineko Altxa Lili elkartearen partaideak dioenez, «konturaturik jendea pixka bat aspertzera zela egunero bazelako zerbait eta antolatzeko ere zaila zela, Kultur Hilabetea antolatzea erabaki genuen. Horrela, ekin-tzak bakarrik asteburuetan dira eta jendeak jarraitzen ahal du errazago».

Ondoko urtean Sarako Gaztetxea elkarteak eta Zugarramurdiko Akelarre gehitu zitzaizkien, eta aurten badute beste bat, Berako Gure Txokoa.


Urteroko Kultur Hilabetea gaitzen inguruan egiten dute; joan den urtean Axular idazlea aukeratu zuten eta aurten mendiaren txanda da. Martxoan hasi ziren prestatzen, eta bilera batzuen ostean, aurten mendiaren hainbat ikuspuntu jorratzeko izanen zela erabaki zuten. Zugarramurditik abiatuta lehen mendia Atxuri dela aintzat harturik eta Azkaine, Bera eta Sara batzen dituen Larrun izanik, *Atxuritik Larrunerat* leloa aukeratu zuten antolatzaileek. «Denetarik bada: mintzaldiak, erakusketak, antzerkia, kontzertuak eta txistebertso afaria, besteak beste». Iparraldeko eta Hegoaldeko herrietako biztanleak euskarak eta kulturak lotzen dituela erakusteko antolatu dute Kultur Hilabetea, finean lau herrien arteko harremanak sendotzeko. «Dena euskaraz da, eta guretzat normala da, lau herrien artean bakarrik euskaraz egiten dugulako. Bertalde, inportantea da euskara bizi dela erraitea eta zerbait egitea euskarari buruz, guk ez badugu egiten bertzeek ere ez dutelako egiten».

Eguneroko bizitzan euskara bultzatzeko eta zor zaion tokia emaitzeko ezezik, badu beste helbururik ere aipatu hilabeteak. Oxandabaratzen azaldu duenez, «animazio bat proposatzen zaio herriko jendeari, neguan maiz ez da gauza handirik eta udan badira asko, baino anitz turistentzat, eta guk zerbait herrikoia eta euskaraz dena muntatu nahi izan dugu».

**Ekitaldiz jositako egitaraua** • Altxa Lili, Gaztetxea, Akelarre eta Gure Txokoa kultur elkarteek antolatutako Kultur Hilabeteak 130.000 liberako (3 milioi pezeta hor nonbait) aurrekontua du, eta gaur hasiko da.

Iñurrategi anaiek, Albertok eta Felixek, Himalayako Shisha Pangma mendira egindako espedizioaren diapositiba emanaldiarekin

**A**zkainen, Saran, Zugarramurdin eta Beran heldu den hilean egiten den *Atxuritik Larrunerat Hilabete Kulturala* gaur hasiko da Bidasoako herrian, Iñurrategi anaiek eskainiko duten Shisha Pangma mendiar buruzko diapositiba emanaldiarekin. Lau herrien arteko harremanak euskaraz sendotzeko asmoarekin beste hainbat ekitaldi antolatu dira.



Iñurrategi anaiek hitzaldiarekin hasiko da Kultur Hilabetea.

XOUSA SIMAL



Koldo Amezttoi ipuin kontaketa ariko da abenduaren 22an.

GILBERT GLERE

**Paskal Oxandabaratzen:** «Animazio bat proposatzen zaio herriko jendeari. Neguan ez da maiz gauza handirik eta udan badira asko baina turistentzat. Guk zerbait herrikoia eta euskaraz dena egin nahi izan dugu»

eskainiko dute, iluntzeko bederatzietan, Gure Txokoa elkartean.

Bihar, berriz, ordu berean, Azkaineko Bil Tokin Anuntxi Aranak mendiko mitologia izango du

hizpide. Igandean lekukoa Sarak hartuko du. Sarako kiroldegia kantaldia aterbetuko du arratsaldeko laurretan: Jojo eta Ramuntxo beren taldearekin, Amaia Zubiria, Maite Idirin, Pas-

cal Gaigne eta Josu Goia, Berako musika eskolako ikasleak lagun dituela.

Baina ez da horretan geratuko hilabetea, datorren astean ere bada-eta zer egin eta zer entzun. Zugarramurdin, Azketa ostatuan, bertso-txiste afaria antolatu dute Unai Iturriaga eta Jon Sarasua bertsolariekin eta Ugutz Robles eta Txomin Ezponda txiste kontalariarekin arratseko bederatzietan.

Honetaz landa, Manex Goienez Euskal Herriko mendiaren historiaz mintzatuko da Azkai-

## Haurrentzako literatur lehiaketa

ZUGARRAMURDIKO Akelarre, Azkaineko Altxa Lili, Sarako Gaztetxea eta Berako Gure Txokoa kultur elkarteek antolatu duten egitarau oparoaren barruan hitzaldi, kontzertu eta antzerkiak landa bada bestelakorik ere. Joan den urtean Axular idazle lapurtarra izan bazuten aitzakia Kultur Hilabetea antolatzeko, idazlearen bideak jarraituko dituen norbait aurkitu nahirik edo, aurten lehen aldikotz haur literatur lehiaketa antolatu dute.

Lau herrietako haurrei proposatu zaie mendiaren inguruan istorio edo ipuin bat egitea. «Gure inguruko mendi buruz, istorio, gertakizun, kondaira edo ipuin bat idazteko galdegin diegu», dio Oxandabaratzen. Horrela, bertako umeek beren kultura ezagutzeko eta lantzeko parada izango baitute. Haur literatur lehiaketan hamabi urte arteko umeak parte hartzen ari dira eta bi mailatan banatu dituzte: bederatzietako artekoak eta hamar urtetik hamabi bitartekoak. Epai-mahaiaren erabakiaren ostean lehiaketako irabazleek saria jasoko dute abenduaren 22an Sarako Omordia aretoan egiten den ekitaldian.

Egun horretan bertan, literatur lehiaketaren hariari jarraituz, Koldo Amezttoi ipuin kontaketa ariko du, Urdinola usteko herri Migel zaharra iturri zaintzaileari eta beste herrikoideei gertatzen zaizkien abenturak eta gorá-beherak, hain zuzen ere.

Bada beste berrikuntzarik ere aurtengo egitarauan. Pantxika Telleriak zuzendurik *Maldan gora* dantza garaikide saioa izanen da Berako Kultur Etxean abenduaren 20an arratseko zazpitan. Beraz, aspertzeko aukerarik ez du izanen lau herrietara hurbilduko denak.

nen heldu den ostiralean.

Datorren asteburuan, igandean, Berako Lamixe Bat antzerki taldeak *Lilien lilura* antzeztuko du Kultur Etxean.

Hurrengo asteburuetan ere aspertzeko betarik ez da izanen: Sara, Bera, Zugarramurdi eta Azkainen ospatuko den *Atxuritik Larrunerat* hilabete kulturalaren barruan, Mixel Setoain eta Jakes Casabonek mendia eta oihana izanen dute hizpide; Lau Behi, Tápia eta Leturia Band-en kontzertua eta Irintzinarren dantzaldia izango dira, eta Aconagua eta Shisha Pangma espedizioen bideo eta diapositiba emanaldiak ikusteko eta Eñaut Etxamendiren eta Ttale Oureten hitzaldia entzuteko parada izanen da. X

◆ Pierres Erdozainzi ◆ Zizelkaria

# «Zail da nor bere buruarekin ados izatea»

**P**ierres Erdozainzi eskultoreak aintzatesita hamabost urte badaramatza ere, nahiago izan du anonimatuan bizi eta lan egin Nafarroa Behereko Donaixti-Ibarre herrixkan duen baserrian. Hala ere, Lapurdiko kostan edota Hegoaldeko aglomerazioetan bizi diren askok lortu ez dutena egin du, hau da, bere lanarekin bizitzea.

Julen Arriola / Donaixti-Ibarre

EGITEN dituen eskultoretatik bizi bada ere, askotan amore eman behar izaten du. Gustatzen ez zaizkion enkarguak egin behar izaten ditu lehenik, eta gustokoak alde batera utzi beta duenerako.

■ **Zure gustokoak ez diren lanak egin behar dituzulako kezua zara. Nolako lanak eskatzen dizkizute?**

Orokorrean elkarte edo omenaldietarako, hala nola urrezko edo diamantezko etzeiak ospatzeko izaten dira. Oraindik ere, altzarien apainketa lana gero eta urriagoa den arren, lantzean behin altzariak eskatzen dizkirate. Jendea proposamen jakinarekin dator, lehenagotik ikusi duen ideiarekin eta nik eskaera horri erantzuten saiatu behar dut.

■ **Hain zaila da enkarguz lan egitea?**

Egia esan oso zaila da besteentzat lanean aritzea, aldi berean bai beraientzat eta bai zuretzat lan egin behar duzulako. Oso oreka txarra da. Zuretzat lan egiten baduzu, berriz, lan egina da. Besteek ikusten dute eta ez badute gustoko utzi egiten dute, baina zuretzat bakarrik egiten duzu lan. Gaur horrela pentsatzen duzu eta bihar ez da posible. Oso zaila da zeure buruarekin ados izatea.

■ **Ez da beti horrela izanen, ezta?**

Badago jende interesgarria. Badituzte esperientzia politikak ere. Bere lanarekin nahi dudana egiten utzi izan dit jendeak. Beti pentsatu izan dut enkarguak ez ditudanean niri gustatzen zaizkidan ideiak jorratuko ditudala. Baina, oraingoz behintzat, beti badut egitekorik eta ez dut denborarik buruan ditudan ideiak lantzeko.

■ **Zer lan gustatuko litzaizuke egitea?**


Badut gustoko dudana modu bat sakontzeko gogo. Egurrean edo harrian, bolumen desberdinak banandu eta horiek antolatzen saiatu nahi nuke. Bestalde, jendeak atzera botatzen dituen materialekin lan egin nahi nuke. Adibidez, altzariak lantzen dituzenean, ebanistek aglomeratua baztertu egiten dute lantzeko oso material zaila delako. Zaila den arren, niretzat interesa du lantzeak.

■ **Orain gustoko duzun proiektu batean ari zara.**

Bai, nire herriaren enkargu bat dut. 1992an egin genuen Pastoral gogoratuz eskultura bat paratu nahi dute. Enkargua egin zidaten, ideia bat aurkeztu nuen, eta orain, hiru tona dituen harria lantzen ari naiz. Gure herriko zazpi auzoak irudikatzen dituen zazpi iturriko aska izanen da. Egin ditudan lanetatik garrantzitsuena da nire herriko jendeak eskatu baitit.

■ **Ikusten dudanez zure tailerrean, beti egurra edo harria lantzen duzu. Material noblea hobea da?**

Burdina ere gustatzen zait. Batzuek nahiago dute material bat bestea baino, nik hiruarekin lan egiteko erraztasuna dut. Askotan egiten dut lan burdinarekin edota hiru materialak nahastuz. Bronzearrekin ere zerbait egin izan dut. Hastapenetan zura lantzen hasi nintzen, erakusketa batean zizelkari bat harria lantzen ikusi



Pierres Erdozainzi, lantokia duen bere baserriko gela batean.

JULEN ARRIOLA

nuen arte. Geroago, tailerrean nire kabuz probatzen hasi eta gero, ongi moldatzen nintzela ikusi nuen eta gutxinaka lanean hasi nintzen. Garai horretan Dibourdieu ezagutu nuen, harria gozoki lantzen zuen, eta berearekin hartu nuen konfiantza.

■ **Garai horretakoa da Lauburu elkartearekin izandako kolaborazioa?**

Bai. Beratek hilarrietan saktzen dute, eta horretan interesatu nintzen. Oso garai interesgarria izan zen, Lauburu elkarteak, hemengo hilarrien forma mantenduz, simbologiaren elementuak modernizatzeke proiektua zuelako. Hilarrietan marraztutako lan asko egin nuen, guztira, 202. Horieta bazu gero grabatu egin genituen. Hala ere, jendeak nahiago ditu elementu tradizionalak mantendu edo ikusi duen gustoko zerbait errepikatu. Alor honetan berri-zea zaila da.

■ **Erakusketak egitearren, mar-**

**golari eta eskultore asko kostara edo denbora luzerako Parisera joan behar izan dute. Zuk Donaixti-Ibarren geratzea aukeratu duzu.**

Ez zen aukera izan, etxean geratzea errazagoa baita. Nik beti izan ditut arazoak kontaktuentzat, beti bizi izan naiz herrian eta nire kontaktua beti hemengo jendearekin izan da. Izan dudana lana ahoz ahokoa izan da. Bakarrik eta familiarik gabe egoteak ere izan du zerikusia, egiten dudanaekin bizitzeko lain dudalako.

■ **Zure lanak Iparraldean ezagunak diren arren, hamabost urtetan erakusketa gutxi egin dituzu.**

Jendeak ni ezagutzea normala da, urte asko daramat honetan lanean. Erakusketa batzuk egin ditut: Izuran Haize Berrin, behin baino gehiagotan Mauleko Akitaniako Aretoan, eta Baigorri Nafarroaren Egunean.

■ **Eskultore gutxi dira Nafarroa Beherean.**

s o s l a i a

Besterik ematen badu ere, Pierres Erdozainzi baditu 39 urte. «Erosotasunagatik» edo, mendeetan familiakoak egon izan diren baserrian bizi da. Donaixti-Ibarreko Arkalondo auzoko azken baserrian, hain zuzen ere. Tokia zoragarria da, bal-lararen bihotzean, Nafarroa Behereko Zuberorekin muga egiten duen Oskitxeko gainean.

Gazte zela Biarnoko ebanisteria enpresa batean hasi zen lanean. Ebanistak, euren lana bukatzen zutenean, egindakoa apaindu egiten zuten, besteak beste, gereziendoz edo intxaurrondoaz egindako Luis XV altzariak. Egun, berriz, apaintzaile ofiziala ahtzear dago.

Hamabost urteotan denetarik egin du: zura lantzean, harria zizelatu edo burdina moldeatzeaz gain, koadro batzuk ere pintatu ditu. Lantzean behin, gainera, Nafarroa Behereko aste kulturallak aurkezteko logotipoak edota kartelak diseinatu eta margotu ditu.

Hau orokorra da Iparraldean. Margolariak badira baina eskultore gutxi, eskultura eta horretatik bizitzea zaila baitira. Materialak garestiak dira; pentsa zenbat balio dezakeen hiru tonako harri bat garraiatzeak.

■ **Orain, zein dira zure proiektuak?**

Nire lana hobetu. Azken urteotan gustoko egin ditudan lanak sailkatzeke-katalogo baten falta sumatzen dut. Aspaldian dut horrelakorik egiteko gogo.

■ **Eta erakusketek dagokienez?**

Badituzte proposamen batzuk. Donibane-Garazin horietako bat: Baionan ere erakusketa bat egiteko proposamena egin zidaten. Era berean, gustatuko litzaidake Euskal Kultur Erakundeak Kanbon duen erakusketa parte hartzea. Hala ere, zaila izango da hori gauzatzea, erakutsi nahi ditudan 15 eskultorek jabea dutelako, eta lan gaitza da hilabeterako eskatzea. Gainera, nik neure eskultura gutxi ditut gordeak. x

«Orain nire herriaren enkargu bat egiten ari naiz. 1992an egin genuen Pastoral gogoratzeke, gure herriko zazpi auzoak irudikatzen dituen zazpi iturriko askaren eskultura paratuko dut»

## LUCRÁNDO



ZALDI ERROA